

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 330/2022 Erabakia, ekainaren 7koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako laguntza lerroa, auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2023ko programaren barruan

Ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako toki erakundeetan obra txikiak egiteko laguntza programak arautzen ditu.

Foru arau horren II. tituluaren auzo harremanak sustatzeko ekimen programari buruzko xedapenak ezartzen dira, bai eta horrelako laguntzak emateko arauak eta irizpideak ere.

Programa horrek landa giroko gizartean auzo harremanak eta talde izaera sustatu nahi ditu, tradiziozko sistema erabiliz edo auzolanen bidez lanak eginda.

Horretarako, eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentzien urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua aplikatuz, auzo harremanak sustatzeko 2023ko programaren barruan Arabako toki erakundeei eman beharreko laguntzak arautuko dituen deialdia onetsi behar da.

Deialdia idazteko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritako arau esparrua.

Era berean, eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontuan hartu da euskararen erabileraren faktorea Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Horregatik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau:

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko oinarriak, auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2023ko programaren barruan.

Bigarrena. Esleitzea 584.573,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako indarrean egongo den aurrekontu taldearen "10203. G/459100/76800102 Auzo harremanak gauzatzeko" aurrekontu partidan, deialditik sortzen diren ordainketei aurre egiteko kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintza pean (etengarria izango da baldintza hori).

Hirugarrena. Programa ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak II. tituluaren xedatutakoaren arabera dago araututa. Horren arabera:

1. Erakunde onuradunak.

Laguntza programa honen onuradun izan daitezke 21/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan jasotzen diren erakundeak.

Ezin dira onuradunak izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluaren adierazitako arau hausteren bat dela-eta zehatu diren erakundeak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak jasotako egoeretan daudenak ere.

2. Finantza zuzkidura.

Hasierako finantza zuzkidura Arabako Foru Aldundiaren 2023rako aurrekontuan berariaz edo era osagarrian auzolanak finantzatzeko jasotzen diren partiden hasierako esleipenen batura gisa dago kuantifikatuta. Zenbateko horiek handitu ahal izango dira beren hasierako zuzkiduraren ehuneko 50era arteko kopuruaz.

Dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da partidaren kreditu erabilgarria egotea.

3. Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratu ondorengo egunean hasi eta 2022ko uztailaren 14ko 23:59an amaituko da.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen, toki erakunde bakoitzak erabakia hartu beharko du, bere antolaketa eta funtzionamendu araubidearen arabera, eskatzen dituen obra eta zerbitzuei buruz.

Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa aurkeztu behar dira nahitaez: <https://e-s.araba.eus>. Nahitaez erabili behar da Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenen (Auzolana) 2023ko laguntzak eskatzeko berariazko inprimaki elektronikoa, eta eskaera helbide elektronikoa honen bidez egin behar da:

TR Relaciones vecinales EUS - egoitza (araba.eus).

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek telematikoki aurkeztera behartuta daude, egoitza elektronikoa berariazko izapidearen bidez (TR Relaciones vecinales EUS - egoitza (araba.eus)): pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

Erregistro elektronikoa bakar batean aurkeztu daitekeen gehieneko luzera gainditzen duen dokumentazio osagarria aurkeztu behar bada, beste aurkezpen bat egin ahal izango da. Aurkezpen horretan, gutxienez, zer erregistro zenbaki edo kode individualizaturen osagarria den aipatu beharko da, edo hura identifikatzeko informazio nahikoa.

Eskaerarekin batera, egin beharreko obren aurrekontu xehatua (kostua eta BEZa zein bere aldetik adierazita) aurkeztu behar da. Hirigintza arloko udal teknikari-aholkulariak proiektua beharrezkoa dela egiaztatzen badu (eskaera inprimakiarekin batera dagoen "Proiektuaren beharraren ziurtagiria / Hirigintza txostena" inprimakian), obren aurrekontua edo balioespena aurkeztu beharrean obrak gauzatzeko proiektu teknikoa aurkeztu beharko da, non orobat jaso beharko baitira Eraikuntzaren Kode Teknikoaren 1. eranskinean finkatutako agiriak eta edukiak. Eranskin hori Eraikuntzaren Kode Teknikoa onesten duen martxoaren 17ko 316/2006 Errege Dekretuak onetsi zuen.

Hirigintza arloko udal teknikari-aholkulariak egiaztatzen badu (eskaera inprimakiarekin batera doan "Proiektuaren beharraren ziurtagiria / Hirigintza txostena" inprimakian) eragin sektorialak daudela, eskaerarekin batera aurkeztu beharko da toki erakundeak erakunde eskudunari obrarako autorizazioa, baimena edo aldeko txostena emateko egindako eskaeraren kopia. Dokumentu hori aurkezteko epea laguntza deialdirako eskaera aurkezteko berbera da.

Hirigintza arloko udal teknikari-aholkulariak adierazten badu (eskaera inprimakiarekin batera doan "Proiektuaren beharraren ziurtagiria / Hirigintza txostena" inprimakian) jarduketaren xede den ondasunak katalogazio edo babes motaren bat duela, edota ustezko arkeologia zonetan jardun nahi dela, organo eskudunari aurkeztutako txosten eskaeraren kopia aurkeztu beharko da eskaerarekin batera (AFAko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua, hirigintza arloko udal teknikari-aholkularia, AFAko Museo eta Arkeologia Zerbitzua). Dokumentu hori aurkezteko

epea laguntza deialdirako eskaera aurkezteko berbera da. Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren edo hirigintza arloko udal teknikari-aholkulariaren aldeko txostena beharrezkoa balitz, laguntza eskaera epea laguntza deialdirako eskaera aurkezteko berbera izango da.

Jaruketa zoladura jartzeko baldin bada edo jarduketan zoladura jarri beharra sartzen bada, aurkeztutako aurrekontua edo balioespena behar bezain zehatza izan beharko da, zenbat metro koadroz ari garen jakiteko eta zer material erabiliko den jakiteko.

Hau da 21/2013 Foru Arauaren 7. artikulua 2. apartatuak aipatzen duen hormigoizko modulua 2023rako: 30,29 euro/m².

Eskaerak osorik bete ezean edo oinarri hauetan adierazitako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio falta diren datuak eta agiriak aurkezteko horretarako ezarritako epean, eta jakinaraziko zaio epealdi horretan agiri edo datu horiek aurkeztu ezean eskaerari uko egin diola ulertuko dela eta eskaera artxibatuko dela, organo eskudunak ebazpena eman ondoren.

Aurreko oinarrian ezartzen diren ondorioetarako, osorik ez dauden eskaerak ez aurkeztuzat joko dira erabat zuzendu arte.

21/2013 Foru Arauaren 17. artikulua 5. apartatua ezarritakoaren arabera, ezingo da eskatu laguntzarik Lurralde Oreka Sailak kudeatzen dituen beste laguntza programa batzuen 2023rako deialdietan eskatu diren obretarako, eta, batez ere, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2022-2023 deialdiaren barruan eskatu ziren obretarako.

4. Obren tipologia.

21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua jasota dauden izaera duten jarduketak gauzatzeko eman daitezke laguntzak, auzolanez egin badaitezke.

Baldin 6. artikulua horrek aipatzen dituen jarduketak gauzatzeko organismo eskudunen baimena eta/edo aldeko txostena behar bada, jarduketari ekin baino lehen eduki beharko da.

Eskatutako jarduketa "Hornidura edo saneamendu sareak partzialki konpontzea, detektatutako gabezien ondorioz" epigrafean jaso bada, orduan honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Detektatutako gabeziei buruzko dokumentazioa (konponketen fakturak...).

b) Bestela, horren orde, udaleko teknikari-aholkulariaren txosten teknikoak aurkeztu ahalko da, non azaldu beharko baitira detektatutako akatsak, haien izaera, garrantzia, antzintasuna eta haren iritziz eskaera aztertzeko interesgarri izan daitekeen beste edozer.

Baldin eta eskatutako jarduketa Arabako Foru Aldundiaren Errepideen Erregistroan sartutako bideetan egin beharreko obretarako bada, eskaerarekin batera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak egindako aurrekontua edo agiri teknikoak aurkeztu beharko da. Gisa horretako obretan, mantentze edo garbiketa lanak ere sar daitezke, eta salbuespenez, akabera zurruna (hormigoia), baldin eta baldintzak fisikoek (esaterako malda handietan lan egitea) hala eskatzen badute eta hala definituta ageri badira aurkeztutako agiri teknikoetan. Horrez gainera, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak berariaz gomendatu beharko ditu, toki erakundearentzako egindako txostenean.

Haien kategoria gorabehera, legez izendatutako arkeologia zonetan jardunez gero, nahitaezkoa da Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren txostena.

21/2013 Foru Arauaren 8. artikulua 6. apartatua ezarritakoaren ondorioetarako, toki erakundeak ondasun eta eskubideen titularrak izango da baldin eta ondasun eta eskubide horiek toki erakundearen izenean izena emanda badaude jabetza erregistroan, edo bestela, toki erakundearen ondasunen inbentarioan jabe gisa jasota badaude.

5. Laguntzak esleitzeko araubidea eta hautatze irizpideak.

Dirulaguntzak esleitzeko araubidea eta aplikatzekoak diren hautatze irizpideak ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren 9. artikuluan daude jasota.

Laguntzen deialdiaren ebazpena emateko, emandako epean aurkeztutako aurrekontu ekonomikoan oinarrituz egingo da dirulaguntzaren hasierako kalkulua; aldeak edo akatsak antzematen badira, zuzendu egin beharko dira. Zuzendu ondoren, emaitza ondorio guztietarako aplikatuko da.

6. Prozeduraren ebazpena eta jakinarazpena.

Prozeduraren ebazpena eta haren jakinarazpena ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo dira.

Eskatutako obrak programan sartzeari edo ez sartzeari buruz hartutako ebazpena toki erakundeek jakinaraziko zaie. Ebazpen horrek administrazio bidea amaitzen du.

Toki erakunde onuradunak bete egin beharko ditu dirulaguntzak emateko ebazpenaren jakinarazpenean ezarritako baldintzak eta betekizunak.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean xedatutakoaren arabera kontratu txiki bat bada, hornitzaile desberdinei eskatutako gutxienez hiru eskaintza izan beharko dira kontratazioaren aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago eskaintza horiek egiten dituen hornitzaile kopuru nahikorik; kasu horretan, behar bezala justifikatu beharko da erakunde eskatzaileak sinatutako dokumentu batean.

Bat etorri Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak ezarritakoarekin, obren esleipendunak hizkuntza ofizial bien tratamendu eta erabilera egokiak bermatu beharko ditu, eskumena duen organoak uste badu kontratuaren xedeak hala eskatzen duela.

7. Obrak gauzatzeko eta agiriak aurkezteko epea.

Obrak egiteko epea 2023ko azaroaren 30ean amaituko da. Epe bera izango da justifikazio dokumentuak aurkezteko. Salbuespenez, horretarako ahalmena duen Lurralde Orearen Saileko titularrak berariaz onetsi beharko duen justifikazioa aurkeztu ondoren, obra amaitzeko eta obra gauzatu dela justifikatzen duten agiriak aurkezteko epea luzatu ahal izango da, 2023ko abenduaren 31ra arte, baina ezingo da data horretatik aurrerako luzapenik eman.

Ordainketaren egiaztagiriak aurkezteko epea 2 hilabetekoa izango da, dirulaguntza ordaintzen denetik aurrera.

Diruz lagundutako jardueraren zabalkundea eta publizitatea, euskarria edozein dela ere (liburuxkak, kartelak, argitalpenak...), bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da.

8. Dirulaguntza bat baino gehiago aldi berean.

Gertatuko balitz "Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenak" laguntza programaren kontura diruz lagundutako jarduketak bat aldi berean beste dirulaguntza batzuekin ere finantzatzea, 21/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan horretarako xedatutakoari jarraituko zaio.

9. Dirulaguntzak errebokatzea eta itzultzea.

Dirulaguntzak emateko eta benetan jasotzeko ezarri diren baldintzak funtsezkoak dira; hortaz, bete ezean, guztiz errebokatuko dira, eta itzuli egin beharko dira jasotako kopuruak, eta, hala badagokio, aurre egin beharko zaie dirulaguntzak arautzen dituen foru araudian aurreikusitako erantzukizunei.

Laugarrena. Lurralde Orearen Saileko foru diputatuari ahalmena ematea aipatutako obrak izapidetzeko eta egiteko zenbanahi agindu eta xedapen emateko, bai eta dagozkien aurrekontu partidek hartarako aukera ematen dutelako geroago egiten diren esleipenak onesteko ere, betiere prozedura ebazteko kide anitzeko organoak proposatutako lehentasun hurrenkera betez. Era berean, ahalmena izango du errebokatze edota itzulketak eskatzeko.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Seigarrena. Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orokaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orokaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA